

ERGASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

1. ALEA

Gasteiz, 1992 Abendu

**GEROA
ELKARREKIN
LANTZEN**

made in Gasteiz

RUPER ORDORIKABERBETAN

MULTIOPTICASen Ducci bilduma berria

Diseinu bakarra, berezko maila
eta dotoretasuna dituzten
betaurreko bakanak. Zure bizimodua
eragiten duen betaurreko moda.
Edertasuna ulertzeko zure era.




Goreneko izena

MULTIOPTICAS

Zergatik ez

Macintosh?



Macintosh Classic

4Mbko RAM zurrurna
40 Mbko Disko gogorra
Floppy 1,44 (Mac/PC)
Stylewriter inprimagailua
105.000 Pzta.*

Macintosh LC

4Mbko RAM zurrurna
40 Mbko Disko gogorra
14" Kolorezko Monitorea
Floppy 1,44 (Mac/PC)
154.000 Pzta.*

*BEZ sartu gabe



Apple Computer
Banatzaile Baimendua



Bilbo

Colón de Larreátegui, 25
Tfnoa: 4 23 02 13

Algorta

Av Basagoiti, 52
Tfnoa: 4 60 95 91

Donostia

Arrasate, 6
Tfnoa: 42 32 27

Gasteiz

San Francisco
Tfnoa: 28 41 33

GEU
Gasteiz

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

**1691 Postakutxa
GASTEIZ**

Zuzendaria

Joseba Gorostiza

Erredakzio-batzordea

Iñigo Barruso

Xabir Etxaniz

Mikel Garmendia

Txema Millan

Patxi Salaberri

Publizitatea

Martin Rezola

Maketazioa

Blanka Agiriano

Alex Badillo

Argazkilariak

Lukas Etxeberria

Joseba Olalde

Kolaboratzaileak

Agurne Aizpitarte

Asier Garro

Iñaxio Lopez de Arana

Txipi Ormaetxea

EUSKARA-GASTEIZ.

Geroa Elkarrekin Lantzen
taldearen babesarekin

5.000 Ale

Lege-Gordailua

VI-582/92

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain
hartzen bertan adierazitakoen
erantzunkizunik

Herri alfabetatua . . .

Euskararen mendez mendeko atzerakada dela-ta, maiz aski ahazten zaigu horren arrazoi nagusia: gure herria analfabetua izan dela. Erdararen aldeko indarra hortxe dago, haatik: aurrean euskaldun jendea aurkitu duela, bere hizkuntzaren jakituna, baina hizkuntza horretan ez irakurle ez idazlea.

Julio de Urquijo jaunak, mende honen hasierako hitzaldi ezagunean (Lengua internacional y lenguas. El euskera lengua de civilización, Bilbo 1920), garbiro oharrarazi zuen Bidasoaz haraindi zer gertatu den: bertan euskararen mugak ez direla aldatu, hizkuntza lehiakidea, biarnera, patois arrunt eta literaturagabea zelako. Honi, egia da, zuzenketa bat egin behar zaio. Frantsesa aspaldian da indardun, Lapurdin eta Nafarroa Beherean, batez ere, baina euskaldun alfabetatuen kopurua handia izan da beti. Agian ezin genuke Axularrek bere hitzaurrean dioena guztiz sinetsi: "...ez baitakite batzuek nola eskiriba, eta ez nola irakur". Baina bertako euskaldunek euskara erabili izan dute alor askotan, trebe, dotore, beldurrik gabe eta espanturik gabe. Zazpi mila abonatu zituen, duela jada larogei urte, Eskualduna-k, eta, gainera, edozein gaiz ematen zien astekari horrek argibide eta bazka irakurleei.

Bidasoaz honaíndian, berriz, analfabetoak izan gara, eta praktikotasunik ez ikaragarria erakutsi dugu. Euskara kanpotik ikusteko eta bandera gisa erabiltzeko joera eta ohitura ere bai. Euskararen garbitasuna eta aitzinatasuna goraipatua izan dugu erruz, askotan erdaraz, jakina. Eta bitartean aurreko hizkuntza idatziari eta mintzatuari muzin egin zaio eta euskararen berpiztea etorkizun ilun batean gelditzen zen, bestek egingo zitelakoan (seme-alabek, aberria askatuko zenean, e.a.).

Ez dut uste funtsean pentsamolde hau desagertu denik. Jendeak nahiago omen du urtean behin edo bitan ikastolen jaietara joatea. Lukainka eta ardoa, izan ere, ederrak izaten dira bertan, eta, gainera, ezagunek ikusten gaituzte. Baina euskara ikastea, norberak bere euskara aberastea eta trebatzea, hori ez. Heldu eta gazte askori arrotz zaizkie haien txokokoak ez diren hitzak, esaerak, ebakerak, aldea txikia izan arren, eta, ikasketak euskaraz egin badituzte ere, ez dira orotako euskara dei genezakeen batean mintzatzeko gauza. Irakasle askotxok ere ez dute sekula euskal libururik irakurtzen. Ikaragarria da kale eta bide ondoko izenburuetako euskara gaiztoa (eta urteetan irauten dute horrela, lotsagabeki). Irrati-telebistetan esatari batzuek lasai-lasai erakusten dute minutuoro, are segunduoro, prestakuntzarik ez tamalgarria; erdaraz inola ere onartuko ez liratekeen hutsak guztiz barkagarriak omen dira euskaraz. Ba ote dugu baikor izateko arrazoirik?

Endrike Knörr

Aldizkari hau dohain, debalde, banatzen da. Jaso nahi baduzu bete ohar hau eta bidali 1691 posta kutxara.

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA ETXEAN DOHAIN JASO NAHI DUT

IZENA:

DEITURAK:

KALEA:Zenb.:Pisua:

Kode postala:

HERRIA:

ONGI ETORRI, OLENTZERO!



*Urtero bezalaxe, aurten ere
Olentzero, gure ikazkin aberats
eta bihozkorrena Abenduaren
24ean jaitsiko da Euskal Herriko
kaleetara, guri bisita egin,
zoriondu eta ondo portatu direnei
zerbait oparitzera. Eta, antza
denez, betiko patxada eta
izakera lasaiarekin agertuko
zaigu oraingoan ere, ez inork ez
ezerk ez omen du bere onetik
atera ahal izan. Hori bai, iaz
bezain tripontzi, sudurgorri eta
aurpegibeltz segitzen du;
horretan ezin da aldatu,
aldatzekotan ez bailitzateke
gurea. Jakina, zerbait berezirik
gertatzen ez bazaio, pipa ere
eramango du, txapel eta ikatz
zakuarekin batera. Baina
bestelakoa da arazoa: oparirik
ekarriko al digu? Bai? Ez?
BAAIIIEEEETTTTTZZZZZ!*

**JAI ZORIONTSUAK
GUZTIONTZAT!**

ANBOTO

**TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA**

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 - 01001 GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau
Okindegia
eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

NOLAKOA ZAREN, OLENTZERO!

Maiz asko toki batetik bestera aldatzen da Olentzero pertsonaiaren izakera. Orohar tripontzi handia da eta edaria ere oso gustokoa du. Gosearena gogoratzeko honako hau kantatzen diote zenbait tokitan:

*Olentzero guria
ezin degu ase,
bakarrik jan dizkigu
hamar zerri gazte;
sayeski ta solomo
tripa zayak aste,
Jesus jaio dalako
konsola zaitezte.*

Beste zenbait lekutan sasiletratuen maila sobera gainditzen duela adierazteko honela abesten diote:

*Olentzero, buru haundia,
entendimentuz jantzia...*

Baina badira maltzurregiak diren abeslariak ere, aurreko kantuari aldaketa txiki bat eginez, bestelakorik kantatzen dutenak hain zuzen:

*Olentzero buru haundia,
entendimendu gabia ...*

Olentzero itxuratzeko eta kaleratzeko modu arras ezberdinak aurkitzen ditugu Euskal Herrian barrena: igitaiairekin, tximiniaren kontra, etxeetako balkoietan, etab.

Halere, ohiturarik zabalduena Olentzero, aulki batean eserita, etxez etxe eramatea da, gazteek askaritzo batetarako puskak biltzen dituzten bitartean. Ondoren, herri askotan su ematen diote gure pertsonaiari.

Gaur egun jai hauetan kantatzen diren kanta gehienetan Olentzero Jesus jaio delako berria herrira eramaten duen pertsonaia bezala azaltzen zaigu:


*aditu zuenian
Jesus jaio zela,
lasterka etorri zan
parte ematera.*

Dena den, Olentzero ez da inoiz geldirik egoten eta gertu ei dago beti bere izakera moldatzen joateko. Hona hemen, esaterako, gure ikazkinari eskaini zaion azken abestian egindako karakterizazioa:

*aditu zuenian:
Gasteiz Euskalduna!
lasterka etorri zan
bertan bizitzera!*

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

(XAMAR-en *Orhipean* liburutik hartua eta moldatua)



ELKAR



SUKALDEKO HALTZARIAK

Manuel Iradier, 37

Tfnoa: 25 45 88

Faxa: 27 81 93

01005 - GASTEIZ



Cercas Bajas, 8
Telefona eta Faxa 28 74 82
01008 GASTEIZ

KALEA MINTZO

I N K E S T A

Gabonak gainean ditugu, eta tradizioak agintzen duen legez, Erregeek eta berreskuratu berri dugun Olentzerok beren opariak ekarriko dizkigute. Gaiari azaletik helduz, jendeak gogokoen nor duen jakin nahi izan dugu. Hona hemen erantzunak:

1- Nor da zuen etxean gabonetan opariak ekartzen dituen pertsonaia, Erregeak ala Olentzero?

2- Arrazoren bat ba al dago bata edo beste aukeratzeko?

ANGEL. TEKNIKARIA.



- 1- Biak, baina opari gehienak Olentzerok ekartzen dizkigu.
- 2- Olentzero pertsonai mitikoa eta bertakoa delako. Gainera, gure semeak gustokoagoa du bera. Erregeak ere aukeratzen ditu, badakizu gizarte hau nolakoa den. Berak entzuten duen guztia nahi du, denek opariak nahi izaten ditu.

ARANTXA. IRAKASLEA.




- 1- Nire etxean biak.
- 2- Nire ama euskalduna denez Olentzerok ekartzen dizkigu opariak, txikitatik ekarri dizkigu gainera. Bestalde, Errege egunean ere beti izan ditugu opariak. Dena den, Olentzero da erregalu hoberenak ekartzen dizkiguna. Erregeak berriz, ohitura ez galtzearen edo, ospatzen jarraitzen dugu.



MOBILIARIO kide
apaindura

Cercas Bajas, 27 - Tfnoa.: 14 41 95 - 01008 GASTEIZ



zalu
FOTOKOPIAK
Berehalaxe!!

Prado 20


Tfnoa: 945-288248 Faxe: 945-253291

PATXI. GARBITZAILEA.

- 1- Erregeak.
- 2- Tradizioagatik, gu ez gara hemengoak eta ez dugu Olentzeroren ohiturarik. Gainera, gure etxean ez dago haurrik, txikienak hemezortzi urte bait ditu.

MARIA. IKASLEA.

- 1- Erregeak eta Olentzero, denak.
- 2- Erregeak, gurasoen ohitura mantentzearren. Olentzero berri, hemengo ohitura delako. Urte Zaharretan Santa Klaus edo Papa Noelek ere ekarri izan dizkigu opariak.

FRANCISKO. JUBILATUA.

- 1- Ez bata eta ez bestea. Gure etxean Santa Klaus da.
- 2- Ba begira, ni urte askotan Ameriketara, Venezuelara egona naiz eta han Santa Klaus aukeratzen zuten gehienbat, nahiz eta aberri ezberdinetako jendeak bere ohiturak ere mantendu. Dena den, nire hilobak Olentzero ere gogoko du.

AMAIA. MERKATARIA.

- 1- Olentzero.
- 2- Bai, badago. Guk haurrak ditugulako eta Olentzero lehenago ospatzen denez jolasteko denbora gehiago dute. Familia arteko detaile txikiak direla eta, Erregeek ere ekartzen dute zerbait. Jostailuak, ordea, beti Olentzerok ekartzen ditu.

fasprint

Cercas Bajas, 4
Diputazioaren atzekaldean
Tfnoa: 27 92 51 - Fax: 25 42 10

Inprenta zure zerbitzura

Eskutxartelak, fakturak, Eranskailuak, Gonbide txartelak, Aldizkariak, Txartelak

ZERBITZU BERRIAK

- Paper birtziklatua eta ekologikoa
- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- Kamisetetan estanpaketak

Bazenekien...?

...1520an Karlos
enperadorea
Alemaniara joan
zenean, Utrecht-eko
Adriano Forisze
kardenalea geratu zela
erregente edo agintari
bezala?

...Adriano VI izenaz
ezagunago izango zen
kardenale hori 1522ko
Urtarrilaren 9an
katolikoen Aita Saindu
aukeratu zutenean
Gasteizko Herreria
kaleko bizilaguna
zela?



...Kutxilleria kaleko
"Kordoi Etxea"-ri ate
gainean harrian
landuta duen kordoi
edo lokarri
frantziskarragatik
datorkiola izen hori?

...Etxe barruko foso
eta dorrea XIII.
mendean izan zirela
eraikiak?

...Dorre horretako gela
nagusiko sabaia gotiko
liluragarrian apaindua
dagoela?

...Izendapenaren berri izan bezain
azkar, Aita Saindu batentzat egokiagoa
omen zen Kordoi Etxera aldatu zela
bizitzera?

...460 urte baino gehiago pasatu direla
italiarra ez den beste Aita Saindu bat
aukeratua izan arte?



HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behea. Tfnoa. 28 41 96 - 01005 GASTEIZ



LARRUKI

Larruaren
Artisautza


KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK

Kutxilleria, 26
Tfnoa: 28 38 86

01001-GASTEIZ

RUPER ORDORIKA

Ruper Ordorika eta mugalaris taldeak diska plazaratu berri du



Ruper
Ordorika
1976 aldera
hasi zen
kantatzen.
78/79 aldera
serioago
hartu zuen
eta 80aren
udazkenean
"Hautsi da
Anphora"
diskoa atera
zuen.
"Diskorik
gabe ezin
duzu ibili"
esaten du
arrazoiz
Oñatin jaio
eta
Gasteizen
bizi den
abeslariak.

■ "Musikaren munduko gauzak norberak egiten dituen diskoen arabera kontatzen dira."●

Nondik sortu zen musikarako duzun zaletasuna?

Egia esanda, ez dakit baina joera hori betidanik izan dut. Bereziki kanturako zaletasuna izan dut. Beti gustatu izan zait jendea kantuan ikustea.

Zure familian egon al da beste musikaririk zure aurretik?

Ez, nik ez dut familiaren aldetiko inolako eraginik izan. Familia guztietan bezala, gurean ere egongo da bizarra kentzen duen bitartean kantuka ibiltzen denik. Ez, ez zait alde horretatik etorri kanturako grina.

Gainetik bada ere, kontatuko didazu zure ibilaldi profesionala?

Musikaren munduko gauzak norberak egiten dituen diskoen arabera kontatzen dira. Kantuan (baina ez jende aurrean) askoz lehenago hasi arren, 1980an ateratu nuen nire lehenengo diskoa, "Hautsi da anfora" izenekoa, hain zuzen. Hori Bernardo Atxagaren olerkiekin osatu nuen. Garai horretan aldizkari bat eta beste hainbat gauza egiten genituen elkarrekin. Orduan Bilbon sei lagun bizi ginen pisu berean: Jose Mari Iturralde, Joseba Sarrionandia, Manu Ertzilla, Jon Juaristi, Bernardo Atxaga bera eta seiok. Harreman horren ondorioz sortu zen lehenengo diskoa. Bigarren diskoa, "Ni naiz Noruegako Errege" izena hartu zuena alegia, 1983an kaleratu nuen. Ordurako dextente ibilia nintzen kantuan, jende aurrean esan nahi dut. Gero, kanpoan egon nintzen bolada luze batez eta bultatu nintzenen beste talde bat osatu nuen. Horrekin batera ere, "Bihotzerreak" izena zuen nire hirugarren diskoa kaleratu nuen. Geroztik ibili naiz hainbat urtetan ezer grabatu gabe, Euskal Herrian eta kanpoan maiz jo badut ere. Ondoren, 1990ean "Ez

da posible" izenburuko diskoa ateratu nuen. Azkenik, "Ruper Ordorika eta mugalaris" zinta orain gutxi, Durangoko azokarako hain zuzen, kaleratu berri dut.

Horretaz aparte, beste gisa batetako lan batzu ere egiten ditut, nahiz eta nire lanbidetik kanpo egon. Esaterako, aurrean ari naiz aurretantzean gorputzuko den beste proiektu batekin. Bere izena "Emak bakia baita" da.

Zeintzu dira zure musikaren inspiratzaileak?

Nire musikaren eragileen artean bi ardatz nagusi bereizi behar dira: bata, nire sasoiarekin lotzen nauena (*blus*, baladak, *rocka* eta holako gauzen aldetiko eragina) eta bestea, nire hizkuntza eta nire munduarekin uztartzen nauena. Azken honi dagokionez, kantu zaharra deitzen den horretarako zaletasun handia izan dut nik beti. Horregatik, gogotik saiatzen naiz mundu horretatik zenbait ñabardura eta aplikazio bilatzen.



Ez al duzu uste *rock* gogorra joz ("Negu gorriak" eta bestek jotzen dutenaren parekoa, esate baterako), arrakasta handiagoa lor zenezakeela?

Nik uste dut harreman natural bat gertatu behar dela norbera eta bere lanaren artean. Ezin nezake fikzio bihurtu nik egiten dudana, holako gauzak egiteko trebea edo iaioa banintz ere.

Zer da, zure ustez, jendearekin "konektatzea"?

Nire ustez, jendearekin konektatzea hau litzatzeke: norberak egiten duenarekin bera eta jendea oso gustora egotea. Dena batera gertatzea, alegia. Bide batez esanda, hori jende aurrean oso gutxitan gertatzen da. Ni ere inoiz jendearekin konektatzera iritsi naiz: lehenengo egunean Oñatiko taberna batetan, adibidez.

■ "Proiektu asko daukat buruan eta denbora gutxi" ●

Zergatik erabili zenituen Bernardo Atxagaren olerkiak lehenengo diskorako?

Behin irakurri nituen Atxagaren bi testu orain inon topatzen ez den aldizkari batetan eta zera esan nuen nirekiko: "Hau nik idatzi izana nahi nuke". Gero, Bernardo ezagutzeko aukera izan nuen eta geroztik gauza asko egin dugu elkarrekin. Bestalde, nire iritziz, *Etiopia* liburuan ordurarte sekula gertatu ez zen idatzera mailako iraultza handi bat suertatu zen.

Zer da lehen aipatu didazun "Emak bakia baita"?

Hain zuzen ere, Bernardo Atxagak, Jose Mari Iturraldek eta hirurok "Henry Bengoa" elkarrekin egin genuenetik zerbait elkarrekin egin behar genuela argi genuen. Kontua da badaudela gauza batzuk gure aldetik bideratu nahi genituzkeenak,

GILTA
ARBA

ZERRAILDEGIA

LARRIUNETARAKO ZERBITZUAK 24 ORDUZ
zerrailak, giltzak, atekak, kotxeak...

Tfnoa: 945-26 57 29

Jose Mardones, 7
01004 GASTEIZ

ardatz

itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5-1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 GASTEIZ

denok baikaude beste zenbait argitaletxerekin harremanetan. Hori ikusita, hirurok pentsatu genuen klub moduko bat osatzea: gaur egun "Emak bakia baita" dena, hain zuzen. Nahiz eta oinarritzko taldean hiru bakarrik egon, harreman handiak ditugu beste batzuekin. Ni, esaterako, musika arloaz arduratzen naiz. Beste gauza batzuren artean, itzulpen kolekzio bat ere emango dugu argitara eta lehenengo itzulpena Durangoko azokarako atera da. Horrezaz gain, gure talde honek "Garziarena" izeneko aldizkari moduko bat kaleratu du. Bertan hainbat gaiz dugun iritzia plazaratzen dugu, azken batean, erreflexiorako bidea ematea baita aldizkariaren helburua. Lehenengo "Garziarena" honetan daude, esaterako, politikaraino doazen gauza batzuk. Dena dela, "Emak bakia baita" ez da biharko proiektua, sendotzeko urteak behar izango dituen zerbaizik.

Zertan ari zara oraintxe bertan?

Lehen esan dizudan bezala, orain bukatu berri dut "Ruper Ordorika eta mugalaris" diskoa. Disko hau Gasteizko estudio batean grabatu dugu. Nire ustez, aurretik egindakoaren ondorioa besterik ez da oraingo hau. Bertan Juan Carlos Perezek, "Itoiz" taldeko kantaria zenak, parte hartu du.

Zeintzu dira aurrera begira dituzun asmoak?

Baditut proiektu bi batera egiteko, musikarekin zerikusia dutenak biak. Bestalde, "Emak bakia baita" taldearen gauzetan ere gehiago jardun nahi nuke. Egia esanda, proiektu asko daukat buruan eta denbora gutxi.



erabat ikusten ez dudana bezalaxe. Beti daukat etorritakoaren sentimendu hori. Hori ezin nezake zeharo kendu, hemen urteetan bizi arren. Hau esanik, ez nuke gaitzik esan gahi. Ni hortan primitibo xamarra naiz, ez baitut ondo hartzen bere jaioterria gutxiesten duena. Beraz, ez nuke nahi inork ni holakotzat hartzerik. Nolanahi ere, Gasteizen oso gustora bizi naiz.

Zer erizten diezu Gasteizi eta gasteiztarrei?

Ni jaiotzez Oñatikoa naiz eta gure bailarakook, Leintz bailarakook, betidanik izan dugu oso harreman berezia (familiarra, nolabait esanda) arabarrekin. Beraz, nik

"Kanpotik ez da ondo ezagutzen Arabaren errealitatea" ●

Zergatik bizi zara Gasteizen?

Ni Gasteiza hamaika urterekin etorri nintzen. Duela bost urte atzera itzuli nintzen hona arrazoi praktiko batzuk zirela medio, besteak beste, entsairolekuak, musikari ezagun asko, etab. hemen ditudalako. Gainera, hemen hamazazpi urtera arte estudiatu nuenez, hemen lagun asko ditut, nire musikoak ere hemengoak dira, eta abar. Bestalde, aitortu beharra daukat Gasteizko eguneroko bizi-giroan ez dudala gehiegi parte hartzen. Nik ez dut neure burua erabat ikusten hemen, inon

Gasteiz ez dut inoiz oso urrundik ikusi, nahiz eta hizkuntza aldetik oso urrun egon nire jaioterritik. Bestalde, Araba osoan Ebroaren eragina ikaragarria da folkorean, janari kontuetan, harremanetan eta abarretan. Nire iritziz, Gasteiz Arabatik urruntzen ari da, Gasteizko biztanleriaren erdia baino gehiago kanpotarra delako. Nik uste dut Gasteizek baduela bere jitea, azken urteotan bere identifikazioaren bila ibili arren. Dena dela, kanpotik ez da ondo ezagutzen Arabaren errealitatea.

den-dan
h a l t z a r i a k


Gerardo Armesto, 2 • Tfnoa: 24 38 49
01008 GASTEIZ

HABE

EUSKALTEGIA

Evira Zulueta, 4 (Prado parkearen ondoan) • GASTEIZ

IKUS



TAKOAK



Bagare
EUSKAL C TOKIA
Kutxileria, 62 - 01001 Gasteiz
945 - 25 10 84

**LAN EGIN EZAZU
EUSKARAREN ALDE**

EUSKARA-GASTEIZ. GEROA ELKARREKIN LANTZEN

“Euskaldunok ados jarri behar dugu euskararen auzian”

EUSKARA - GASTEIZ

**Otsailaren
erdialdean
Soziolinguistikaren
inguruko hitzaldi
pare bat
antolatzeaz
batera, euskararen
sustapenerako
talde berri bat
sortu zen
Gasteizen bertan.
Geroztik gogotik
dihardute
euskalgintzan,
Gasteizko Euskal
Komunitatea
osatzea bere
helburu nagusia
izanik. Guk talde
horretako zenbait
partaiderengana
jo dugu guzti
horretaz berri
zehatzagoa izan
ahal izateko.**

**Nola sortu zen taldea eratzeko
asmoa?**

1991.eko Urrian hasi ginen biltzen Gasteizen asmo beretsuetan genbiltzan euskaltzale batzuk. Izan ere, ordurarte guk euskararen inguruan izandako kezak bideratzeko modu desberdinak eta agian pertsonalegiak erabiliak genituen. Horregatik, elkarren berri izan bezain laster, argi eta garbi utzi genuen gure eginkizun nagusia, hots, Gasteizen euskaraz bizitzeko gutxienezko bitartekoak lortzea denon artean mamitu beharreko zerbait zela.

**Zeintzu dira EUSKARA-GASTEIZ.
GEL taldearen ezaugarriak?**

Lehenengo eta behin, gure taldea zer den azaldu behar da: gerora Elkarte bat osatzeko sortu dugun batzorde edo plataforma. Ez da, beraz, oraindik Elkartea formalki eratu, horretarako pausu sendoak ematen ari bagara ere. Galdetu didazunarekin lotuz, gure taldeak honako ezaugarri hauek ditu: euskalduna, irekia, plurala eta autonomoa. Euskalduna, euskara komunikatzeko tresnatzat duten hiztunek osatuta dagoelako. Irekia eta plurala, bestalde, inork ez duelako euskararik aurrera aterako bere indarrez bakarrik. Horrexegatik, lanbide, pentsakera eta aukera politiko guztietako euskaldunak biltzen ditu bere baitan. Aipatu zabalatasuna guk nola edo hala bermatu nahi dugun zerbait da. Eta hauek hitz hutsak baino gehiago direla argi gera dadin zera esango dizugu: gure mezua zabaldu beharra dela medio, dagoeneko ideologia

desberdinetako jendearekin hitzegin dugula, hitzegiten dihardugula eta, jakina, aurrerantzean ere gehiagorengana joko dugula. Azkenik, gure taldea erakunde guztiekin lan egiteko gertu badago ere, beraingandik erabat autonomoa dela esan behar da.

Zeintzu dira zuen helburuak?

Funtsean, bat bakarra dugu, Gasteizen bizi garen euskaldunok euskaraz bizi ahal izateko ahalik eta aukerarik gehien sortzea, hain zuzen ere. Horretarako, euskararen erabilpena sustatu behar da. Gure helburua gizarte eremu guztietan eragitea bada ere, abiapuntu gisa, bost ditugu lan sailik



garrantzitsuenak: komunikabideak, kultura, asialdia, euskaltegi eta ikastegiak eta sentsibilizazio arloa. Ildo horretatik, guzti hori gauzatu ahal izateko, Gasteizko euskaldungoa trinkotzetik, multzo bihurtzetik abiatu beharra dago.

Kontutan hartzekoa da, bestalde, Gasteizen ere egoera berezian bizi garela hemengo euskaldunik gehienak euskaldunberriak direlako. Jakinaenez, euskara, edozein hizkuntza bezala, praktikatu ezean, galdu egiten da eta hori gertatu eta gertatzen ari zaio, zoritxarrez.

Gasteizko euskaldun berri askori. Bestalde, errodako datuei begiratu bat botaz gero, batzuri pozgarri gerta dakizkiekeen datuak topa daitezke, hola

nola, Gasteizen milaka euskaldun gaudela, milaka ere direla euskalduntze pro-zesuan murgilduta daudenak, etab.

Halere, euskaldun bakoitza bere kabuz bizi da eta hizkuntza fenomeno soziala den aldetik, sakabanaketa horrek euskaraz bizitzeko aukerak erotik murritzten ditu. Beraz, euskararen erabilpena ezagutzaren mailarekin parekatzeko euskaldun eta euskaldungai guzti horientzako erreferentzia puntua izan behar duen elkargune bat eskaintzeari ezinbestekoa deritzogu. Horretarako, euskaldunok elkarrekin jarri behar dugu harremanetan lehen aipatutako trinkotze horretara joz. Hortaz, euskaldunok ados jarri behar dugu euskararen auzian. Egia esanda guk

badakigu jotzen dugun enbidoa gogorra dela baina ez eutsiezina.

Zuen ekimen honek ba al du zerikusirik alderdi politiko batzuk agertu dituzten euskararen kontrako jarrerekin?

Ez, gure helburua euskaraz eta euskararen aldeko berezko dinamika bat sortzea da eta besteen esanak ez du gure lana ezertan baldintzatuko. Euskararen erabilera eta motibazioa bultzatu nahi baditugu jarrera zabala izan behar dugu. Gure iharduera ez doa ezeren kontra, euskararen alde baizik.

Zer egin duzue biltzen hasi zinetenetik?

Gehien bat barrura begirako gauzak lantzen ibili gara, hala nola, barne egituraketa, esta-tutoak, proiektua paperean idazten, etabar. Kanpora begira ere zenbait ekintza antolatu dugu, besteak beste, hasierako hitzaldiak, ikas-taroren bat, *GEU GASTEIZ* aldiz-karia bera. Lan dexente egin da baina ora-indik ere asko da eginkizun duguna.



Zuen asmoak euskaldunak elkartzea baldin bada, zergatik sortu duzue talde hau, antzeko helburuak dituen Bagarek euskalgintzan aspaldi jarduten zuela jakinda?

Kezka hori bera izan dugu hasiera-hasieratik. Norbaitek pentsatzen badu inolako konpetentzia egin nahi diegula, oso oker dago. Hala ere, Bagare-ren baitatik lehen aipatu dizugun euskaldunen elkargunea edo erreferentzia sistema osatzeari ezinezko eritzi genionez, egitasmo honi ekin genion. Dena dela, Bagare eta gure taldearen arteko egungo harremanak onak dira eta horren agerbidea da, hain zuzen ere, orain hizketan gabiltzala elkarrekin aritzeko formularik egokiena bilatu ahal izateko.

Zertan ari zarete oraintxe bertan?

Dagoeneko hainbat ekintza egin badugu ere, hasieratik sortu nahi genuen elkar-tea ez dugu oraidik eratu, lehen esan dizugun bezala. Hori bideratzeko gertakuntza lanetan dihardugu egun. Horretaz aparte, geroke elkartearen biziaren bermagarri bakarra izango den bazkidetza kanpainan ari gara. Guzti horretarako, gure taldearen berri zabaldu behar da lau haizeetara gure elkarteak eta euskarak berak ere beraiei dagokien lekua eskura dezaten apurka apurka Gasteizen.

* *GASTEIZ* euskaltegia:

Errege Katolikoak, 15-C • Tfnoa: 28 89 22

* *PINTO* euskaltegia:

Pintorería, 74-Tfnoa: 28 97 80

* *ZALDIARAN* euskaltegia:

Zaldiaran Plaza, 16 - Tfnoa: 24 49 05

EUSKARAZ

JANTZIAGO EUSKALDUNAGO



1

*Inglesa bultzatu ta
ukatu euskara,
zenbaitek gura luke
apartean laga;
baina sustraiei eutsi
nahi diegu, bada
Euskal Herria dira
Gasteiz ta Araba.*

2

*Nahiz eta izan hoge
bat mila euskaldun,
ia ez denez entzuten
euskal hitzik inun,
gabiltza gaur egun,
Gasteizko euskaldunak
iratzar ditzagun.*

3

*Euskararen geroa
hain tristea dela
ez dugu ipini nahi
beraren eskela,
baizik eta sinistu,
zer kristo bestela!,
Gasteizen be euskaraz
bizi gaitezkeela.*

4

*Elkartea izan dadin
indar handikoa,
egongo da jendea
denetarikoa;
ez dadin izan traba
ideologikoa,
pluraltasuna bedi
erabatekoa.*

EUSKARA - GASTEIZ

1691 Postakutxa

**GEROA
ELKARREKIN
LANTZEN**

Bazkide nahi zaitugu

Deiturak: _____

Izena: _____

Jaioteguna: _____ Lanbidea: _____

Helbidea: _____ Tfnoa: _____

Herria: _____ Pta. kodea: _____

Banku-Aurrezki kutxa: _____

Sukurtsala: _____ K/K edo libreta zkia: _____

Data: _____

Sinadura



ZORIONAK

1992eko Eguberri hauetan zorionik beroenak eta bake eta oparotasun nahirik onenak bidali nahi dizkiet arabar guztiei, batik bat, krisialdi ekonomikoak zuzenean ukitu dituen sendiak.

1993ak ekar dezala Araba eta Euskal Herri osoarentzat garapen eta ongizate sasoi berri bat.

Alberto Ansola Maiztegi
Arabako Diputatu Nagusia

DIPUTACION
FORAL DE ALAVA



ARABAKO
FORU ALDUNDIA

hAurRAk

MARITXU BERRITSU BARRUTIK

Maritxu Berritsu 6etatik 7etara ematen den irratsaio bat da. Egunero dago, larunbata eta igandea ezik.


Ostiral arratsaldeko 5ak dira. Astelehenerarte eskola amaitu dugu. Orain Maritxu Berritsu irratsaioan parte hartzera goaz. Euskadi eta Gasteiz irratiko estudio batean sartzen gara. Ene! Zenbat jende! Iritsi bezain laister programa honetako zuzendaria den Jenik gaurko gidoiak banatzen ditu. Behin edo bitan irakurri ondoren estudio barrura sartzen gara.

Dena isil-isilik dago. Bapatean sintonia entzuten da, urduri jartzen garelarik.

Ordu bete osoa dugu oraindik, mikrofono eta argi gorriaren aurrean. Farre eta inozokeria ugari egiten ditugu irratsaioan zehar. Honek, ordua konturatu gabe igarotzea egiten du. Eta hurrengo astera arte agurtzen gara. Lagun berriak egin ditugu, gauza bitxiak ikasi eta zuoi, gure entzuleoi, kontatu dizkizuegu.

Benetan atsegina da irratian hitzegin edo lan egitea

«Maritxu Berritsu»koak.



IGARKIZUNAK

Luze, mehea,
erretzailea;
garaia, estua,
teilatuan.

(tximniala)

Bereak bere
gureak bere,
lan egiten du
gauez.

(lapurra)

Izenez naiz erdia
izan, berriz, osoa.
Jasaten izerdia
eta oinetakoa.

(galizerdia)

Belarrik gabeko zelaia,
urik gabeko itsasoa.
Munduan asko dira
dauden.....

(basamortuak)

Bi punta aurrean,
begi bi atzean.

(artaziak)

Gogorra eta ezia
gabonetako jakia.

(turroia)

Hankak ditu
eta ez da mugitzen,
janaria du
eta ez du jaten.

(mahala)

Izan daiteke txikia
izan daiteke handia
lauki edo borobila
zigarrokinen hilobia.

(hautsontzia)

Botilaren muturrean,
hobei barruan,
ibai erdian,
eta futbolariak bihotzean.

(-b-)

Zuria eta borobila
gaueko eguzkia.

(ilargia)

1992ko

EUSKAL LIBURU ONENA

ORHIPEAN, Xamar


Euskal Kultura Ezagutzeko Liburua

PAMIELA argitaletxea




GABONETAN EGITEKO

1- ZETA PAPER
BERDEA.




48cm
LAUKI BAT EGIN




TOLESTU ERDITIK LAU ALDIZ

PINUA HARRAZTU ETA
MOZTU TOLESTATUTA
DAGOEN ALDEAN.



ZORTZI PINU LORTZEN
DIRA HORRELA


20 ZHTAKO LAUKIA
EGIN KARTULINA BATEAN




20cm
ERDITIK TOLESTATU.




LEHENENGO PINUA
KOLATU ERDIAN



BIGARREN PINUA
KOLATU MARKATUTA
DAUBEN TOKIETAN.
GAUZABERA 4. ETA 6.
PINUEKIN



HIRUGARREN PINUA
KOLATU MARKATUTA
DAUBEN TOKIETAN.
GAUZABERA 5. ETA 7.
PINUEKIN



8. PINUA BAKARRIK
KOLATU 2 TOKI HORIETAN.
ONDOREN KARTULINA
TOLESTATU KOLA EIKATU
ARTE.



URTE
BERRI
ON
NAHI DUZUN MEZUA
IDATZI



LORTUTZI BAT
HARRAZTU... ETA
GABONETAKO PINUA
EGINDA !!



PAPERA
TOLESTU



ERTZEAN
GRAPATU ETA
ONDOREN PAPERAK
KOLATU HARRAZKIAN IKUSTEN DEN BEZALA



LEHORTU ONDOREN
NAHI DUZUN LEKUAN ZINTZILIKATU

OLENTZERORI LAGUNTZEN



Denok dakizue zenbat lan izaten duen Olentzerok gabonetan. Eta aurtengainera ez behar txiki bat izan du: ez du gogoratzen non dauden Gasteizko zenbait kale. Mapan begiratu beharko ditu, baina zein auzotan?

Lagunduko al diozu zuk, kaleak zein auzotan dauden esanez?

Bizkaia
Argentina
Kubo
Dantzari plaza
Gasteiz
Galizia
Kejanako gaztelua
Alfredo
Jose Mardones
Paula Montal

Arana
Batan
Adurtza
Sansomendi
Txagorritxu
Ariznabarra
Alde zaharra
Donnay Arriaga
Zaramaga
Judizmendi



ditare

MIHISEDENDA

UME ETA EMAKUMEENTZAKO
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK

Cruz Blanca, 13 - GASTEIZ

VDABERRIA

elkartea

- * Euskaltegi Homologatua
 - Helduentzat
 - Ume eta gaztetxoentzat
- * Musika Eskola
- * Dantza

Uruguay, 9 • 01012
Tel: 24 49 65

VITORIA-GASTEIZ

GASTEIZTIK DURANGORA

made in Gasteiz

Bukatu berria dugu Durangoko liburu eta diska azoka, eta bertako produkto asko laster iritsiko dira gure dendetaraino. Labetik atera berriak eskaintzen zaizkigu, eta eskaintza horretan bada Gasteizen sortutako makina bat liburu eta aldizkari.

Garziarena.

Emak Bakia Baita taldea Euskal Herriko zenbait pertsonaz osaturiko taldea dugu, bertan daude *Ruper Ordorika, Bernarko Atxaga, X. Muguruza, Jose Mari Iturralde, Maria Garikano*, eta abar luze bat. Talde hau, nonbait finkatu beharko bagenu, Gasteizen finkatu beharko genuke; hemen dute egoitza eta bertan bizi dira gehienak.

Emak Bakia Baitak hiru produkto eskaini ditu Durangoko azoka honetan? "*Garziarena*" izeneko aldizkari berria, eta Prospero Meriméeren *Carmen* liburua. Azken hau, Maria Garikanok ederki euskaraturik, eta azkenik Ruperrek Mugalarisekin atera duen diska.

Orain, goizegi da "*Garziarena*" aldizkariari buruzko kritika bat egiteko, baina produkto serio eta independentea izanik, kalitatea eta lan kritikoa zainduko dituztela uste dugu.



Liburugintza.

Arlo honetan eman da produkzio handiena. Gehienak itzulpenak edo edizioak badira ere, bada sorlanik ere. Patxi Zubizarretak, Gasteizen bizi den ordiziar gazteak bi nobedade plazaratu ditu: *Matias Ploff-en erabakiak* (iazko Lizardi saria jaso zuen liburu honek gaztetxo baten arazoak azaltzen dizkigu), ederki kontaturik, hizkera landua duela, eta edizio txukunean Ereinek argitaratua. Eta bestaldetik, Elkar argitaletxean plazaratu den *Gutun harrigarri bat*.

Xabier Etxanizek, bestalde, Txinako ipuinen bilduma berri bat kaleratu du Durangoko azokan, *Zazpi ahizpak* izeneko liburuan. Txinako 20 ipuin



**Gure hizkuntza Araban ere
bertso bezala da gora,
laister euskara egingo dugu
Adurretikan Ebrora.**

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tf.: 23 16 79 GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



herrikoi batu ditu aldizkari honetako kolaboratzaileak. *Berdez jantzitako neska* haren jarraipena izango litzateke hau, eta hura bezala, ipuin labur eta luzeak tartekatuz, edizio zaindua Pamiela argi-taletxearena.

Argitaletxe berak kaleratu du klasiko bat: *Alice*, Lewis Carroll idazle ezagunaren obrak jasotzen dituen liburua. Ez da ahaztu behar *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* itzultzeagatik Manu Lopezek jasotako nazioarteko saria!

Itzulpenetan ere, Maria Garikanok euskaratuta *Carmen* nobela dugu, lehenago aipatu dugun bezala. Ziur gaude bat baino gehiago harrituko dela opera ezagun horretako liburu hau irakurtzerakoan.

Patxi Zubizarreta

Matias Ploff-en erabakiak



Eta erdi itzulpen, erdi sor lan bezala Koldo Biguri Gasteizko itzultzaile ezagunak, Benni idazle italiarren obra batean ainarrituz, egindako *Bitxilandiako animalia miresgarriak* daukagu Erein argitaletxean.

Hertzainak.

Gasteizko musika talde honek, Oihuka disketxearen eskutik, "*Denboraren orra-tzak*" izeneko diska aurkeztu du Durangoko azokan. Aurrekoetan bezala, arrakasta handia izango duela uste dugu talde honen azkena izango omen den diska honek.


Beraz, badago nahiko aukera eta eskaintza zabala Gasteizen sortua. Batzuei harrigarri gertatzen bazaie ere, Gasteizen gero eta euskal produkto gehiago burutzen da, eta kalitatezkoak!



Egurrezko jostailuak



Didaktika - materiala



Opariak

Benito Ginea, 2
Tfnoa: 25•75•14
GASTEIZ

KIROLAK

Eskia, garai honetako kirola.

Urterik urte eskiatzeko zaletasuna goruntz doa. Gasteizen kirol honetan aritzeko eskaintzak zabaltzen ari dira egun hauetan. Era askotakoak izan badaitezke ere, orrialde hauetara «Gasteiz Mendizaleen Bazkuna»-k eskeintzen dituen ikastaroak ezagutzera emango ditugu.

Naturak inguraturik, elur maldetan behera haizearen kontra irrista egiteak ematen duen plazerra eta atsegina, horixe bera eskia baita. Horrezaz gain, adituek dioten bezala, kirol osasuntsuenetarikoa dugu.

Halere, betidanik baztertua izan da gure artean; batez ere, kirol zuri honetan aritzeak, ia-ia oraintsu arte, suposatzen zuen dirutzagatik. Edozein modutan, azken bolada honetan gero eta hurbilago dugu gure poltsikoetatik.

Arabako instituzioek eta mendiko elkarteek, hurrengo urteari begira, era askotako aukerak eskeintzen ari diral kirol mota hau praktikatu ahal izateko; helburua, guztion eskuetan jartzea delarik.

PREZIOAK, GERO ETA MERKEAGO.

Eski estazioetan eta nolabait aseguru-etxeei jarritako prezioen aurrean, argi eta garbi ikusi baita taldeetan antolatzea dela biderik egokiena. Era honetaz ahalik eta merkeen lortzen baita eskian aritzea.

Aurten estazioetan prezioen igoera eman baldin bada ere, aseguruak dira neurri handi batean kirol hau garestitzen duten faktoreetariko bat. Jesus Mintegi, «Gasteiz Mendizaleen Bazkuna»-ren arduradunak dioten bezala, «aseguru-etxeak oso uzkur agertzen dira kirol honen aurrean, erorialdi eta istripu asko gertatzen direlako, behintzat hala diote».

Halaz guztiz ere, orain arte datuek bestelakorik erakusten digute. Bataz beste, erorialdi txarrik edota bihurketarik sufritzen dutenak ez dira milatik hiru baino gehiago izaten..



Mulumma

MASAIA - QUIROMASAIA

Kote Zubizarreta

Olagibel, 20
Telefonoa 25 92 06

MUGA

Adriano VI, 4
Tfnoa: 14 63 25
GASTEIZ

**LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA,
KARTOGRAFIA, BIDAIK
ETA MENDI GAJETAN**

Navarrería, 20
Tfnoa: 22 25 29
IRUÑA

IKASTAROAK.

Kirol hau goraipatzea, praktikatzen dutenen artean murgiltzea besterik ez da egin behar. Iaz, adibidez, milatik gora joan ziren larunbatero edo igandero Candanchu-ra «Gasteiz» elkartearen bitartez. Dagoeneko, aurten izen-emateko bulego beterik aurkitzen da egun hauetan.

Hurrengo urteari begira, elkarte honek antolatutako ikastaroak mota askotakoak dira, bertan adin guztietako jendeak parte hartu dezakeelarik. Baldintza bakarra bazkidea edo partaidea izatea da. Halere, honako momentuan egin daiteke.

Prezioak honako hauek dira: 18 urtetik gorakoentzat, 1.800 pzta. 65 urtetik gorakoentzat, 1.400 pzta. 15-17 urte bitartekoentzat 1.200 pzta eta 14 urte arte 600 ptza urteko. Beraz, sinbolikotzat jo daitekeen diruagatik antolatzen diren ikastaroetan parte hartzeko aukera duzu-duzue.



ZENBAIT AHOLKU.

- Elurretara joan baino lehen, beste kirol mota egitea komenigarria da, gorputza askoz ere prestuago, eta min hartzeko beldur gutxiagoz eraman daiteke. Horien artean, igeriketa, bizikleta eta ibiltzea gomendatzen dira, batipat.
- Janariari dagokionez, gosari ederra egitea ona izaten da, hotza dela eta, kaloria ugari erretzen baita. Eskiatzeko poltsikoan intxaurrak edo pasak eramateaz ez da inor damutuko. Arratsalde aritu nahi bada, bazkaria arina izan dadin beharrezkoa da.
- Mendiko eguzkiak hondartzakoak baino gehiago erretzen du, beraz, eskiatzera atera baino lehen azala eta ezpainak krema egokiaz igurtzia ezinbestekoa da. Begiak babesteko, eguzkitarako betaurrekoak eramatea behar-beharrezkotzat jotzen da. «Sendatzea baino, prebenitzea askoz hobea da».
- Arropa arina izateaz aparte egokia izan behar da elurretarako. Botak ondo aukeratu egin behar dira, zenbaki normalari bat edo bi gehituz, eroso ibiltzeko.
- Amaitzeko, eski arinaldi horietan seinaleei kasu egitea eta besteei begirune izatea gogoratu behar da, baita natura errespetatzea ere.

Noiz	Eguna	Prezioa (begiralearekin)	Prezioa (begiralerik gabe)	Non
Urtarrila (16tik aurrera)	LARUNBATERO (10 egun)	39.000	31.500	CANDANCHU
Urtarrila (17tik aurrera)	IGANDERO (10 egun)	39.000	31.500	CANDANCHU
Urtarrila (16tik aurrera)	ASTEBURUAK (5 astebukaera)	—	24.000	CANDANCHU

IZEN EMATEA:
"GASTEIZ"
mendizaleen
bazkunaren
egoitzan

NON: Kutxileria
kalea, 61

TFNOA: 25 03 54

ORDUTEGIA:
Arratsaldeko
7etatik 10ak arte

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfnoa: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

Cervecería
Alemana

SALTIXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) • Tfnoa: 13 29 88 • Gasteiz

16
ABENDUA

Goizeko 10,30 etan,
Kultur Etxean:
Gorputz espresioa
(edadetuentzat)

Arratsaldeko 7etan,
Kultur Etxean:
Arte kontenporanea, tailer
teorikoa.

"San Vicente" parro-
kian, arratsaldeko
8,30etan:
Zintzarri. Haurren
abesbatza.

19
ABENDUA

Goizeko 10,30etan
Kultur Etxean:
Tai-Chi (edadetuentzat)

21
ABENDUA

17
ABENDUA

Arratsaldeko 8etan,
Villasuso jauregian:
tertulia "hego-aldeko
auzokideak"

Jose Obrero
Parrokian
(Abetxuko), goizeko
12etan:
Santa Maria
Eskolania

Goizeko 12,30etan,
Principal Antzokian:
Landatxo abesbatza eta Udal banda

Eguerdiko ordu batean, San Andres
Parrokian:
Escolapias Eskolania.

Arratsaldeko 8,30etan San Mateo
Parrokian:
Udaberria Eskolania

20
ABENDUA

18
ABENDUA

Kultur Etxean:
Antzerkia ingelesez
Kultur Etxean, goizeko
12etan:
Tai-Chi (edadetuentzat)

San Miguel Elizan:
Meza/kontzertua. Landatxo abesbatza
eta musika bandaren eskutik.

Arratsaldeko 7,30etan, "Hermanitas de
la Caridad" komentuan:
Luis Dorado Eskolania

Arratsaldeko 8etan, Araba kultur-
aretoan:
Olabide Eskolania

Arratsaldeko 8,30etan: "Desampara-
dos" Elizan:
Cantinelas Abesbatza

Arratsaldeko 8etatik aurrera:
Txistorrada Matxete
Plazan. IKA

23
ABENDUA

Goizeko 10,30etan,
Kultur Etxean:
Gorputz Espresioa
(adinekoentzat)

Arratsaldeko 6etan:
Olentzeroa. Desfilea

Arratsaldeko 7,30etan,
Enparantza Berrian:
Olentzero Jaia. Olabide
ikastola, Indarra Taldea
eta Folklore Eskola.

Arratsean eta iluntzean:
Hainbat kolektibok eta auzo-elkartek
antolatutako olentzeroak.

24
ABENDUA

Arratsaldeko 7,30etan,
El Pilar Elizan:
Gasteizko Ume
Kantariak

Arratsaldeko 8etan
Principal Antzokian:
Marta Knörr-en emanaldia. Lirika

Arratsaldeko 8,30etan San Pedro Elizan:
Araba Abesbatza

26
ABENDUA

Goizeko 11etan Beñat
Etxepare Aretoan:
Antzerkia, "Ayuda en
Acción"

Goizeko 12,30etan,
Principal Antzokian:
Coral Iradier, "XXX. Gabonetako
kontzertua"

Arratsaldeko ordu batean, Buen
Pastor Elizan:
Enol Abesbatza.

Arratsaldeko 1,45etan, San Juan
Bautista Elizan:
Olabide Eskolania, Folklore eskola eta
txistulariak.

27
ABENDUA

28
ABENDUA

Goizeko 10,30etan,
Kultur Etxean:
Tai-Chi
(adinekoentzat)

ADI EGON!!
INUXENTE EGUNA

29
ABENDUA

Arratsaldeko 8etan,
"Coronación" Elizan:
Alaitz Abesbatza eta
Samaniego Eskolania

Nork berea. esperantoa denona

ARABAKO ESPERANTO ELKARTEA

Zapateria, 29 - Tel. 22 05 70



30

ABENDUA

Arratsaldeko 8,30etan,
Las Nieves Parrokian:
"Corazonistas"
eskolania

Gasteizko kaletan zehar:
San Silvestre Krossa
URTE BERRI ON!!

31

ABENDUA

5

URTARRILA

Arratsean eta
iluntzean:
Erregeak
Gasteizko
kaletatik



NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA

PRINCIPAL ANTZOKIAN

Ostirala, 18
Arratsaldeko 7,30etan
Bambalina titelles taldea.
"ULISSES"

Larunbata, 19
Arratsaldeko 7,30etan
Los Duendes taldea.
"La bella durmiente"

Igandea, 20
Arratsaldeko 7,30etan
Panta Rhei taldea
"La leyenda de Jaun de Alzate"

Astelehena, 21
Arratsaldeko 7,30etan
Libelula taldea
"Borrachos de luna llena"

Asteartea, 23
Arratsaldeko 7,30etan
Teatro de Titeres de Mosan taldea
"Marionetki"

Asteazkena, 30
Goizeko 12etan eta arratsaldeko 7,30etan
TAUN TAUN SHOW

Sarrerak: Helduak 500 pta
Haurrak 250 pta

OHARRA: Asteazkenean, goizeko saioa euskaraz

ZAPATEGIA - ARTISAUTZA



Herreria, 86 - GASTEIZ

HERRIZ HERRI

ARABAKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA

ABENDUAK 16

Legutio:

Antzerkia. Proismo Cero
Antzerki Taldea. "Ezin orrazirik
aurrantza" GARAZI eskolan
arratsaldeko 3,30etan.

ABENDUAK 17

Artziniega:

Antzerkia. Proismo Cero Antzerki
Taldea. "Ezin orrazirik aurrantza"
Eskolan arratsaldeko 5,30etan.

Lapuebla Labarka:

Kantaldia. Patxi Villamor.
"ASSA" ikastolan arratsaldeko
3,30etan.

ABENDUAK 18

Agurain:

Antzerkia. Proismo Cero Antzerki
Taldea. "Ezin orrazirik aurrantza"
Kultur Etxean eguerdiko 12etan
eta arratsaldeko 4etan.

Rivabellosa:

Antzerkia. Pan y chocolate taldea.
"Una tarde de Vacaciones"
antzerki-lana. Eskolan goizeko
10etan.

ABENDUAK 19

Langraitz:

Kitarra kontzertua, Roberto
Ugarte eta Javier Antoñanaren
eskutik. Elizan arratsaldeko
7,30etan.

ABENDUAK 21

Aramaio:

Antzerkia. Proismo Cero Antzerki
Taldea. "Ezin orrazirik aurrantza"
Eskolan arratsaldeko 3,30etan.

Maeztu:

Antzerkia. Pan y chocolate taldea.
"Una tarde de Vacaciones"
antzerki-lana. Gizarte-etxean
3,30etan.

ABENDUAK 22

Laudio:

Antzerkia. Pan y chocolate taldea.
"Una tarde de Vacaciones"
antzerki-lana. "LA GRANJA"
polikiroldegian, arratsaldeko 6etan.

Biasteri:

Antzerkia. Proismo Cero Antzerki
Taldea. "Ezin orrazirik aurrantza"
Udaletxeko aretoan 3,30etan
Hitzaldia. "Gabonak Araban"
Joaquin Jimenez-en eskutik,
udaletxeko aretoan arratsaldeko
8,30etan.

ABENDUAK 23

Zuaza:

Antzerkia. Proismo Cero Antzerki
Taldea. "Ezin orrazirik aurrantza"
Etxaurren ikastolan eguerdiko
12etan

ABENDUAK 24

Gaubea:

Antzerkia. Proismo Cero Antzerki
Taldea. "Ezin orrazirik aurrantza"
Eskolan arratsaldeko 5,30etan.

ABENDUAK 25

EGUBERRI EGUNA Araba
osoan

ABENDUAK 27

Dulantzi:

Dantza. Traspasos Dantza taldea.
"Sin ellas". Polikiroldegian
arratsaldeko 7etan.

Kejana:

Akordioi kontzertua. "Lagunak"
orquestra. Dorrean, eguerdiko
12etan.

Samaniego:

Abesbatza. "Udaberria" abesbatza.
Eliz-parrokian eguerdiko 12etan

eta gainera . . .

Gabonetako ipuin lehiaketa umeentzat.
Bagarek antolatua. Lanak Abenduaren 20a
baino lehen, Bagaren bertan.

Gabonak "92" txapelketa (umeentzat):
Idatziozue zuen eskutitza olentzeroari.
Arabako filatelia elkarteak antolatua,
Gasteiz irratiaaren laguntzaz. Informazio
gehiago nahi izanez gero, Gasteiz irratiara
deitu.

Artesautza Bagare euskal txokoan.
Gabonetan zehar Askapenak antolatua.

Gasteizko artesanen erakusketa/salmenta:
Enparantza Berrian, gabonetan zehar.

23tik aurrera, egunero 11etan Judimendiko
Gizarte Etxean (polikiroldegian) Umeen-
tzako Gabonetako Parkea.



Chimbo

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

Jatetxea

Cuchillería, 57 - Telefonoa 27 28 91 - GASTEIZ

Aurtengo Gabonetan ere, urteroko buruko mina izango duzu, ezta?, zer prestatu Gabon gauerako?
Ez ezazu burua apurtu! Badakizu askotan prestatzeko errazena dela gustokoa.
Hemen duzu, bada, menu erraza eta merkea krisialdiari aurre egiteko.

BISIGUA LABEAN

Osagaiak:

Bisigua
Limoi bat
Olio
Gatza
Bi berakatz ale
Bi goilarakada gurin
Baso bete ardo zuri
Ogi birrindua
Baso bete ur

Bisigua garbitu, eskama, tripak, gainak, hezurak eta aletak kenduz. Gatza eman barrutik eta kanpotik. Ebaki batzuk egin solomoan, limoi atalak bertan sartuz, eta labeko plaka batean ipini olio pixkatekin.

Bestalde, mortairu batean ardoa, ura, gurina, berakatzak eta ogi birrindua nahastu. Nahaste hau bisiguaren gainetik bota eta labean egin poliki poliki, noizbehinka bere saltsarekin bustiz. 20 edo 30 minututan arraina prest egongo da.

AZALOREA BECHAMEL SALTSAREKIN

Azalorea. Osagaiak:

Azalorea eder bat
Bi litro ur
Gatza

Azaloreari konpoko hostoak kendu eta ondo garbitu uretan, zatiak eginez. Lapiko batean ura ipini irakin arte, gatza bota eta azalorea sartu. Azalorea xamurtzen denean ura kendu eta bandeja batera atera. Hoztu baino lehenago gainetik bechamel saltsa botako diogu.

Bechamel Saltsa. Osagaiak:

75 gramu gurin
3/4 litro esne
3 goilarakada irin
gatza

Lapiko txiki batean gurin zatia ipini eta sutan jarri urtzeko, gero irina bota. Nahasketa hau gorritzen denean esne irakin berria erantsi etengabe eraginez. Gatz pixkat bota eta laga egosten hamabost bat minututan.

INTXAUR SALTSA

Osagaiak:

Azalik gabeko 250 gramu intxaur
250 gramu azukre
Kanela adarra eta hautsa
Litro bat ur
Litro bat esne

Lehenengo intxaurrak xehetu trapu baten barruan mailu batez ohol baten gainean joz. Lapikoan ura ipini kanela adarrarekin eta irakitean intxaurrak bota. Irakinez ura agortzen denean, esnea eta azukrea gehitu eta irakiten jarraitu pasta lodi bat egin arte.

Ateratzeko katiluetan banatu eta gainetik kanela hautsa bota.

On Egin! Bai goxoa!

URTEGI-ALDE

SAGARDOTEGIA

Urrunaga (Araba)
Tfnoa: 45 50 67




JATETXEA ERRETEGIA

OKELA ETA
ARRAIN
ERREAK

Cantón de San Fco. Javier, 4 - Telefonoa 27 68 33 - 01001 GASTEIZ

SUKALDE TXOKOTIK

DENBORAPASA



GOITIK BEHERA


1-Loak hartuak; 2-konposaketa poetikoak. Erregalu; 3-Arabako herriska.(Ald)Letra grekoa; 4-Alea. (Ald)Elektrodo; 5-Jardun; 6-Afrikako herrialdea.Euskal atzizkia; 7-(Ald)Emak.....baita. Suge mota; 8-Babariako; 9-Izekoak; 10-Adjetiboei erausteko atzizkia. Letra izena.

ZE HARRETARA


1- Txori hiztun. Atzeraka arraun egin; 2-Odolostea. (Ald) Ur edo itsaso esan nahi duen aurrizkia; 3-Itsas txori. atze; 4-Agiri. (Ald)Pake; 5-Oztopak; 6-Afrikako herrialde.Euskal atzizkia; 7-Araba eta Bizkaiko mugako herria; 8-Alkoldiko anonimoak. Bikain. Ekialdean ile; 9-Sendaezina; 10-Iranekoa.

LETRA-SOPA


Taugres-Baskoniako sei jokalariren deiturak



SOLUZIOA



1992



EUSKADIKO LEHEN KOMUNIKAZIO- TALDEAK HAMAR URTE BETE DITU

*Zorionak
eta
Urteberri On*

Hamar urtetan ametsa egi bihurtu da.


1982. urte arte ilusio hutsa zen.

Gaur egun, lau irrati eta bi Telebista-kate dituela, Euskal Irrati-Telebista Euskadiko lehen Komunikazio-taldea da.

Atzo goizean bertan gertatu zela dirudi. Baina hamar urte joan dira herri honen historian.

Badugu oraindik zereginik asko.

Proiektu berriak. Ilusio berriak...



HAMAR URTE

Caja Vital Kutxaren TeleCaja *plus* berria



Den-Dena Dauka Ba al daukazu zuk?

Bakarrik hitzegitea falta zaio.
Badauzka kredito txartelaren abantailak.
Badauka 6000 txartelaren erabilgarritasuna.
Badauka edozein ezustetarako aseguratik.
Badauka aparteko diseinua...
eta Caja Vital Kutxaren babesa ere.
TELECAJA PLUS berria.
Den-dena dauka
Ba al daukazu zuk?

Argibide gehiago
900-440.440
doanezko telefonoan

KONTUTAN HARTZEKO ABANTAILAK



1. Behar duzun guztietan, kredito automatikoa eta berehalakoa eskuragai izatea.

5. Eskudirua nahiz kredituzkoa ateratzea estatuko 17.000 toki desberdinetan, eta aurki Europa osoan ere.



2. TeleCajak lagun dituen saltegi, jatetxe, tailerretan... ordaintzea.

6. Txartela lapurtu edo galduz gero, edonolako estaldi zein ustekabe alboratzea. Horretarako aski da 16 22 77 telefono zenbakira deitzea, bera indargabetzeko.



3. Ordainbidea beti aukeran izatea: eskura, hilabeteka, epeka...

7. Trenez, hegazkinez, itsasontziz... egindak joan-etorriak ordaintzea, eta istripu aseguria milioietakoa izatea.



4. Txartelaren bidez, erositakoan lapurretarako 3 hilabeteko aseguru berezia.

8. Zure saldoa ikusi, estraktoak eta taloitegiak eskatu eta zure gastuen kontrola eramatea.

Caja Vital  Vital Kutxa

Gasteiz eta Arabako Kutxa